

Donostian, 2019ko apirilaren 11n

IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, LUR AZPIKO TREN IGAROBIDEKO OBREK SORRARAZITAKO TRABEI BURUZKOA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin naizen honek eta EH Bildu udal taldeko zinegotzi Ayem Oskoz Urrutikoetxea zinegotzi naizen honek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten dugu, Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean zein Gune Publikoaren Batzordean, hil honetan, lur azpiko tren igarobideak eragindako trabei buruz aztertutako interpelazioen ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Berriki, Udalean, salaketa bat aurkeztu dute 180 auzotarrek. Hartan, otsailaren 24tik hona gaueko ordutegian zarata eta dardarak jasaten dituztela salatzen dute, Mirakontxa-Easo tartean Topoaren lur azpiko igarobideak obren ondorioz, pertsona horien atsedean eta osasunean eragin kaltegarria baitute.

Halaber, salatu dute Udaltzaingoak ezin izan duela neurketarik egin, zarata neurtzeko gailurik ez zuelako. Mugikortasuneko zinegotzi ordezkariak salaketa horri zehaztapen batzuk egin zizkion, argitu zuenez, tresnak ezin izan dira erabilgarri egon mantentze lanengatik. Arrazoia ulertzen dugu, baina egia da, bestalde, Udaltzaingoak une oro izan behar dituela udal ordenantzak betetzen direla egiaztatzeko beharrezko baliabide materialak.

Igarobideko obraren beste gune batzuetan, gaueko lanak eten egin dira auzotarren kexuen ondotik. Horrenbestez, tarte horretan antzeko neurriak har daitezela eskatzen dute eta zonalde horretako auzotarren atsedean eta ongizaterako eskubidea lehenetsi dadila. Auzotarren kexei erantzuteko, Udal Gobernuak adierazi du igarobideko lanak gaez geldiaraziko dituztela neurturiko zatara mailak legeak onartuak gainditzen dituenean.

Halere, eta Udalaren konpromisoa gorabehera, alde horretako auzotarrek salatzen jarraitu dutenez, onarturiko maila gainditzen du gaueko zaratak.

Gogorarazi beharrea gaude ezen Udalak herritarren ongizatea eta osasuna zaindu behar dituela, eta, horretarako, beharrezko neurri guztiak hartu behar dituela, are ETS erakundera jo eta obrak gaueko ordutegian geldiaraztea eskatzeko ere, zaratak baimendutako mailak gainditzen baditu, eta Udaltzaingoiari beharrezko baliabide materialak ematea, udal ordenantzak betetzen direla zaintzeaz arduratzen den aldetik.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen dugun zinegotziek aurkeztutako

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udaltzarak udal Gobernuak hertsatzen du zaratari buruzko udal ordenantza betetzera, bereziki, gaueko 22:00etatik goizeko 8:00etara lanak egiteko debekuari dagokionez.
2. Donostiako Udaltzarak udal Gobernuak hertsatzen du Udaltzaingoiari beharrezko baliabide materialak ematera, Udaltzaingoiak zarata neurtu ahal izateko hala eskatzen diotenean.

Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.

Ayem Oskoz Urrutikoetxea,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia.